



UPV/EHUn Zuzenbide Fakultateko

Euskara Juridikoaren Mintegia (EJM)

UPV/EHUn Euskara Juridikoaren Mintegia Zuzenbide Fakultatean sortu zen 1990.eko hamarraldian bertan euskaraz irakasten ari ziren irakasle batzuen ekimenez, Zuzenbidearen alorreko euskarazko ikasmaterialak sortu, lege-testuak euskaratzeko eta, azken buruan, euskara juridikoaren garapenean modu aktiboan esku hartzeko.

Azken urteotan Euskara Juridikoaren Mintegiak Zuzenbide Fakultatearen Dekanotzaren eremuan lekutu du bere eginkizuna, euskararen alorra unean-unean landu duten Dekanordeen zereginarekin uztartuz.

Gaur egun ere Euskara Juridikoaren Mintegia Zuzenbide Fakultateko Dekanotzaren egituran txertatzen da, zehazkiago esanda, euskararen alorrerako dagoen Dekanordetzaren eta fakultateko Euskara Batzordearen eremuan.

Euskara Juridikoaren Mintegian UPV/EHUn zuzenbide-gaiak irakasten dituzten irakasle euskaldun guztiak dute parte hartzeko aukera; bai plaza elebidunak betetzen dituztenek eta baita plaza elebakarrak betetzen dituztenek ere.

Une honetan bost lan-ildo ditu zabalik Euskara Juridikoaren Mintegiak:

- a) Legeak-Leyes lege-testu elebidunen bildumaren proiektuaren koordinazioa, gainbegiratzea eta edizioa
- b) Ikasmaterialen ekoizpena (UPV/EHUn Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzarekin elkarlanean)
- c) Artikulu akademikoaren ekoizpena (Eusko Ikaskuntzaren Eleria aldizkariarekin elkarlanean)
- c) Terminologia juridikoaren harmonizazioa (UPV/EHUn Euskara Zerbitzuarekin eta Justizia Sailaren Euskara Batzordearekin elkarlanean)
- d) Euskara Juridikoaren alorreko kontsulta-baliabideen garapena (UPV/EHUn Euskara Institutuarekin eta Zuzenbide Fakultateko Euskara Juridikoaren alorreko irakaslearekin elkarlanean)



Euskara Juridikoaren Mintegiaren burua **Ana Leturia Navaroa** da, Zuzenbide Fakultateko Euskara Dekanordea. Terminologia alorraren koordinatzaile, bestalde, **Jasone Urcola Iriarte** Administrazio Zuzenbideko irakaslea da. **Euskara Juridikoaren Atariaren** arduradun, azkenik, **Joseba Ezeiza Ramos** da, Euskara Juridikoko eta Erakunde Komunikazioko irakaslea bera.

Alabaina, hainbeste dira Euskara Juridikoaren Mintegiaren partaideak: **Carmen Agoues Mendizabal**, **Itziar Alkorta Idiakez**, **Aitor Bengoetxea Alkorta**, **Garbiñe Biurrun Mancisidor**, **Iñaki Esparza Leibar**, **Mikel Karrera Egialde**, **Edurne Terradillos Ormaetxea**, **Leire Imaz Zubiaur**, **Jose Angel Tamayo Errazkin**, **Juan Inazio Ugartemendia**, **Antton Elosegi**, eta beste batzuk.

Lan teknikoetan, bestalde, hainbat itzultzaile eta hizkuntzalariren lankidetza (izan) du Euskara Juridikoaren Mintegiak: **Irene Aldasoro Katarain** (itzultzailea), **Patxi Petrirena Altzuguren** (itzultzailea), **Iñaki Iñurrieta Labaien** (itzultzailea), **Juan Garzia Garmendia** (UPV/EHuren Euskara Zerbitzua), **Ibon Sarasola Errazkin** (UPV/EHuren Euskara Zerbitzua), **Iñaki Ugarteburu Gastañares** (UPV/EHUko Euskara Zerbitzua), **Juan Kruz Igerabide Sarasola** (UPV/EHUko Euskara Zerbitzua), **Haizea Corpa Burguillo** (Euskara Juridikoaren Mintegiko bekaduna), **Begoña Albisu Sukia** (Euskara Juridikoaren Mintegiko bekaduna), eta beste batzuk.

